Munduaren azkenera

Bideo bat ikusiko dugu orain.eus-*en* (EITBren albiste-zerbitzu digitalaren webgunean); haren bidez jakingo dugu zer baldintza bete behar diren animaliekin bidaiatzeko.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Maskota gisa zein animalia gustatzen zaizun esan.**
- **Ulermen-galderei erantzun.**
- **Zerrendetako elementuei erreparatu.**
- **-t(z)eak aditz-izena nola erabili aztertu eta praktikatu.**
- **Maskotak izateko aholkuak idatzi animaliak babesteko elkartearen webgunean.**



karsten-winegeart-owm3TQrv6N4-unsplash

Ikusi aurretik

BAKARKA

1. Aukeratuko nuke...

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Idatzi, euskaltegiko foroan, eta esan zein gustatzen zaizun maskota gisa, eta zergatik.



Adimen artifizialak sortutako irudia

Erantzun ikaskideren bati, eta azaldu zergatik ez zaizun inola ere gustatzen berak aukeratu duena.

BAKARKA

Ikusi bitartean

2. Maskoten pasaportea

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Ikusi bideoa, eta erantzun galderei.

orain

Maskoten pasaportea



egor-gordeev-9NpaoldDYms-unsplash

1. Noiztik aurrera izango da nahitaezkoa animalientzako pasaporte berria Europar Batasunean bidaiatzeko?
a) 2026ko udaberria hasi aurretik.
b) 2026ko laugarren hilabetetik aurrera.
c) 2026. urtearen amaieran.

2. Baldintza hauetako zein bete behar dituzte animaliek bidaiatu ahal izateko?
a) Gutxienez bost hilabete izatea.
b) Mikrotxipa eta txertoak emanda.
c) Albaitariaren osasun-ziurtagiria.

3. Informazio hauetako zein jasotzen da pasaporte berrian?
a) Animaliaren jatorria eta bidaia historiala.
b) Jabearen datuak eta osasun-txostena.
c) Animaliaren eta jabearen identifikazio-datuak.

4. Zein da pasaporte berria ezartzeko arrazoietako bat?
a) Animaliekin egindako nazioarteko bidaiak merkeagoak izatea.
b) Animalien mugimenduak hobeto kontrolatzea eta jarduera irregularrak murriztea.
c) Albaitarien lana erraztea eta administrazio-izapideak gutxitzea.

5. Zer ondorio izan ditzake pasaportea ez eramateak edo eguneratuta ez edukitzeak?
a) Bidaia atzeratu behar izatea.
b) Isuna eta bidaiatzeko debekua jasotzea.
c) Maskota kartzelaratzea.

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

TALDEAN

Ikusi ondoren

3. Zerrendetan...

Elkartu hiruko taldeetan; aztertu testuko bi zerrendak, eta erantzun galderei.



edi-libedinsky-Ibhp9zBPHVE-unsplash

A

- Pasaporte berriak hiru helburu ditu: osasuna **kontrolatzea**, gaixotasunak **saihestea** eta animalia horien legez kanpoko trafikoa **geldiaraztea**.

B

- Ez ahaztu: **mikrotxipa**, amorruaren aurkako **txertoa** eta **pasaportea** eguneratuta, eta prest mugak zeharkatzeko!

1. Esan zein diren zerrenda horietako bakoitzaren elementuak:

A zerrenda:

B zerrenda:

2. Zuen ustez, A zein B kasuetan **bi puntuen (:)** ondorengo zerrendako elementuak modu berean deklinatuta edo nominalizatuta daude? Zuzena ala okerra da hori? Zergatik?

3. Nola jakin daiteke edo zeri erreparatu behar zaio jakiteko zein kasutan deklinatu edo nola nominalizatu behar diren zerrendako elementuak?

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude

TALDEAN

4. Aditzak ala izenak?

Elkartu hiruko taldeetan; aztertu esaldiak, eta erantzun galderei.



edi-libedinsky-Ibhp9zBPHVE-unsplash

A Pasaporte berriak hiru helburu ditu: osasuna **kontrolatzea**, gaixotasunak **saihestea** eta animalia horien legez kanpoko trafikoa **geldiaraztea**.

B Pasaporterik gabe **ibiltzeak** eta eguneratu gabe **eramateak** 100 eta 3.000 € arteko isunak ekar ditzake.

1. Letra lodiz daudenak zer dira: aditzak ala izenak? Zergatik?

2. Zein da Akoen eta Bkoen arteko aldea? Zertan dira desberdinak?

3. Zer adierazten dute?

4. Zein kasu-markatan daude deklinatuta?

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

TALDEAN

5. Praktikatu

Elkartu hiruko taldeetan; erreparatu aditzari, eta nominalizatu behar bezala.



quilia-Ak5c5VTch5E-unsplash

GORATU!
ADITZAK IZEN BIHURTZEAN (nominalizatzean)

- **-t(z)ea bukaera NOR** kasuan
- **-t(z)eak bukaera NORK** kasuan

1. **(eduki)** Etxean animalia exotiko bat _____ ez da beti erraza.

2. **(eraman)** Txakurra aldizka albaitariarengana _____ haren osasuna hobetzen du.

3. **(garbitu)** Dortokaren akuarioa maiz _____ denbora eskatzen du.

4. **(eman)** Animaliari janaria egunero _____ ezinbestekoa da.

5. **(ahaztu)** Untxiari ura jartzea _____ arazo larriak sor ditzake.

6. **(itxi)** Hamsterraren kaiola ondo ez _____ ihes egiteko arriskua handitzen du.

7. **(ukitu)** Animalia basatiak baimenik gabe _____ ez da gomendagarria.

8. **(entzun)** Loroaren beharrak arretaz _____ haren ongizatea hobetzen du.

9. **(utzi)** Sugea denbora luzez bakarrik _____ ez da beti aukera ona.

10. **(errespetatu)** Animalien erritmoa eta ohiturak _____ funtsezkoa da haien ongizaterako.

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

BAKARKA

6. Maskota hartu aurretik

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Irakurri ondo testuingurua, eta idatzi testua. Saiatu zerrendako elementuak ondo deklinatu edo nominalizatzen, eta zuzen erabili -t(z)eak aditz-izena.

Maskota hartu aurretik



humberto-arellano-N_G2Sqdy9QY-unsplash


Testuingurua

Animaliak babesteko zure herriko elkarteak kanpaina bat abiatu du: *Adopzio arduratsua*. Kanpainaren helburua da maskota bat hartu nahi duten pertsonei informazio praktikoa ematea animalien beharrei buruz. Horretarako, maskotak dituzten herritarrek aholkuak emateko testu laburrak idatziko dituzte, elkartearen webgunean argitaratzeko. Zuk **maskota duzu etxean, eta horregatik erabaki duzu aholkuak emateko idaztea.**

Idatzi 100 hitz inguruko testua, eta **azaldu zer animalia duzun etxean, zein diren haren beharrak, zaintzeko zer hartu** behar den **kontuan** (eman aholku eta gomendioak), **zein abantaila eta desabantaila** dituen **maskota etxean izateak**, **zergatik** den **garrantzitsua adopzioa ondo pentsatzea, zer** alderdi komeni den **kontuan hartzea maskota aukeratzeko...**

GOMENDIO EDO AHOLKUAK EMATEKO...

- Komeni da ... -t(z)ea
- Ideia ona da ... -t(z)ea
- Merezi du ... -t(z)ea
- Arazoak ekar ditzake ... -t(z)eak
- .... egin behar da
- Denbora eskatzen du ... -t(z)eak



Feedbacka irakasleak emango dizu.

ERANTZUNAK

2. Maskoten pasaportea
1- b; 2- b; 3- c; 4- b; 5-b
3. Zerrendetan…
1. Esan zein diren zerrenda horietako bakoitzaren elementuak:

- A zerrenda: osasuna kontrolatzea, gaixotasunak saihestea eta animalia horien legez kanpoko trafikoa geldiaraztea.
- B zerrenda: mikrotxipa, amorruaren aurkako txertoa eta pasaportea eguneratuta

2. Zuen ustez, zerrendako elementuak modu berean deklinatuta edo nominalizatuta daude? Zuzena ala okerra da hori? Zergatik?
Bai. Bai, zuzena da: modu berean deklinatuta edo nominalizatuta egon behar dira, eta konkordantzia gorde behar dute **bi puntuen** aurretik formulatuta dagoen esaldiaren aditzarekin.
3. Nola jakin daiteke edo zeri erreparatu behar zaio jakiteko zein kasutan deklinatu edo nola nominalizatu behar diren zerrendako elementuak?
Erreparatu behar zaio bi puntuen aurretik formulatuta dagoen esaldiari, esaldiaren aditzari; horrela jakingo dugu nola deklinatu edo nominalizatu behar ditugun zerrendako elementuak.

4. Aditzak ala izenak
1. Letra lodiz daudenak zer dira: aditzak ala izenak? Zergatik?
Izenak, nominalizatutako edo izen bihurtu ditugun aditzak dira.
2. Zein da Akoen eta Bkoen arteko aldea? Zertan dira desberdinak?
Desberdinak dira, nominalizatuak kasu-marka desberdinetan deklinatuta daudelako. Hala, -t(z)ea bukaera dutenek NOR galderari erantzuten diote; -t(z)eak bukaera dutenek, ordea, NORK galderari.

3. Zer adierazten dute? Izen bihurtutako aditzak direnez, ekintzak adierazten dituzte, baina izen-moduan.

4. Zein kasu-markatan daude deklinatuta? -t(z)ea bukaera dutenak NOR kasuan, eta -t(z)eak bukaera dutenak, ordea, NORK kasuan.

5. Praktikatu
1. (eduki) Etxean animalia exotiko bat **edukitzea** ez **da** beti erraza.
2. (eraman) Txakurra aldizka albaitariarengana **eramateak** haren osasuna hobetzen **du**.
3. (garbitu) Dortokaren akuarioa maiz **garbitzeak** denbora eskatzen **du**.
4. (eman) Animaliari janaria egunero **ematea** ezinbestekoa **da**.
5. (ahaztu) Untxiari ura jartzea **ahazteak** arazo larriak sor **ditzake**.
6. (itxi) Hamsterraren kaiola ondo ez **ixteak** ihes egiteko arriskua handitzen **du**.
7. (ukitu) Animalia basatiak baimenik gabe **ukitzea** ez **da** gomendagarria.
8. (entzun) Loroaren beharrak arretaz **entzuteak** haren ongizatea hobetzen **du**.
9. (utzi) Sugea denbora luzez bakarrik **uztea** ez **da** beti aukera ona.
10. (errespetatu) Animalien erritmoa eta ohiturak **errespetatzea** funtsezkoa **da** haien ongizaterako.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Txakur, katu edo hudoren bat. Hudoa da animalia ugaztuna, arre iluna, txikia eta gorputz luzeduna, usain txarra botatzen duena; ipurtats etxekotua (*Mustela furo*) (es: hurón; fr: furet).
Apirila ezkero. Apiriletik aurrera.
Amorruaren kontrako txertoa. Animaliek —bereziki, txakurrek— gizakiei kutsatu ahal dieten gaixotasun baten aurkako txertoa, injekzioa.
Baimendutako albaitariek. Baimena duten animalien "medikuek".
Legez kanpoko trafikoa geldiaraztea. Salerosketa ilegalak ez gertatzea.
Zaintzapean nahiz derrigorrezko koarentenan. Beste norbaiten eskuetan edo nahitaezko isolamenduan.

TRANSKRIPZIOA

Txakur, katu edo hudoren bat daukazu, eta bidaiatzeko asmorik? Ba, adi: 2026ko apiriletik aurrera, derrigorrezkoa izango da, Europatik (Europan zehar) bidaiatzeko, animalientzako pasaporte berri bat. Elkarrekin eta arazorik gabe bidaiatzeko jakin beharreko guztia kontatuko dizugu.

Apirila ezkero, txakurrek, katuek eta hudoek pasaporte europar berri bat beharko dute Europar Batasunean zehar bidaiatzeko. Animaliak, gutxienez, hamabi aste izan behar ditu, mikrotxipa izan behar du, eta amorruaren kontrako txertoa jarria bidaiatu baino 21 egun lehenago, gutxienez. Pasaporteak animaliaren eta jabearen datuak dakartza, jasotako txertoak eta osasun-tratamenduak.

Pasaporte berriak hiru helburu ditu: osasuna kontrolatzea, gaixotasunak saihestea eta animali (animalia) horien legez kanpoko trafikoa geldiaraztea. Baimendutako albaitariek eman dezakete pasaportea, eta Osasun edo Nekazaritza Ministerioak gainbegiratuko ditu.

Pasaporterik gabe ibiltzeak eta eguneratu gabe eramateak 100 eta 3.000 € arteko isunak ekar ditzake, bidaiatzeko debekua eta animalia zaintzapean nahiz derrigorrezko koarentenan (berrogeialdian) utzi behar izatea.
Ez ahaztu: mikrotxipa, amorruaren aurkako txertoa eta pasaportea eguneratuta, eta prest mugak zeharkatzeko!